


# EcoHodiak



## IDEIA

Hirietako kaleetako edukiontzietan metatzen den zabor kopuruaz nekatuta zaude?

Hauek sortzen duten kiratsa nazkatzen zaitu?

Egoera hau aldatzeko, gure enpresak gaur egungo zabor-bilketa sistema alde batera utzi eta antzinean erabilitako beste bat erabiltzea proposatzen du, baina XXI. mendeko berrikuntzekin.



Aurreko mendean, etxe bakoitzeko sukaldean hodi antzekoen zakarrontzi batzuk zeuden, zaborra beraietatik botatzeko eta etxe-azpian biltzeko. Hau kontuan hartuz, gure enpresak honako ideia aurkezten du: bakoitzak bere etxean (sukaldean, adibidez) zakarrontzien antza duten hodi batzuk izango ditu. Hodi hauetatik, eguneroko bizitzan sortzen ditugun hondakinak botako ditugu eta kaleko kontainerrak erabiltzen duten birziklapenerako sailkapen-metodo berbera erabiliko dute. Tutu hauek, baita beste etxebizitzetan daudenak ere, sare ikaragarri luze bat eratuko dute, lur-azpian (kaleetan) dauden biltegi batzuetan amaitu arte. Biltegi hauetan botatako zaborra bilduko da, gero kanpoaldetik kamioi baten bidez hau biltzeko eta egokia den tratamendua jasotzeko. Hala ere, kaletik oinezkoek momentuan sortutako zikinkeria botatzeko aukera izango dute.



